

IRU TXULO

19.01.95

auzoz al

altza

Itzako herritarrek egindako eskakizunak bere fruituak eman ditu eta Manu Arrue jesuitak, duela gutxi arte San Pablo elizan izan dugun apaizak merezitako omenaldia jasoko du. Donostiako jaiekin bat eginaz Udalak eskaintzen duen Hiritar Merituaren Domina bereganatuko baitu.

Manu 1990. urteko udazkenean Altzara iritsi

orduko hasi zen lanean, batez ere talde margina-tuenekin. Orduz geroztik, droga munduan ibili eta bergizarteratu nahi zuen jendearekin, langabetuekin eta beste zenbait giza talderekin aritu da lanean.

Manuk lan handia egin du Altzan eta hori eguneroko bizitzan ere islatu da, hala nola atsedeen taldeak bultzatu ditu (Kemotronxo, Adiskideak... buruan biziki dituelarik), hirugarren munduko kontuetan lanean dabilen jendea asko lagundu du...

Altza osoaren izenean esker mila eman nahi genioke Manuri, bertan egindako guztiagatik eta bere etorkizunerako hobere-na desio diogu.